

## INOIZ OSPATU DEN FESTARIK ONENA<sup>1</sup>

Egun batean, Jesus festa batean zegoela, esan zion batek:

- Jainkoaren Erreinuaren festa. Hori da nik nahi dudana. Inoiz ospatu den festarik onena izango da hori.

Jesusek beti gonbidatzen zuen jendea Jainkoaren Erreinuaren parte izatera. Ongi zekien Jainkoak den-denak egotea nahi zuela hain jai ederraz gozatzeko. Horregatik, parabola hau kontatu zien...

"Behin batean, gizon batek festa handi bat egitea erabaki zuen. Jende asko gonbidatu zuen, asko. Gero festa prestatzeari ekin zion. Lehenbizi, etxea garbitu era txukundu zuen, dena urrea bezain distiratsu utzi arte. Gero, denetariko janari ugari ederra prestatu zuen. Lan eta lan sukaldean: eltzariak, haragiak, tartak... dena goxoa!

Azkenean, bada, dena prest zegoen.

- Zoazte eta esaiozue jendeari festara etortzeko.

Baina, zer egin zuten gonbidatuek festaren berri izatean? Guztiek jarri zuten aitzakiaren bat... Ez zuten eskuartean zeukatena bertan behera uzterik nahi. Egia esan, ez zuten festara joan nahi, hori zen kontua!

Gizona, burumakur zegoen, kopetilun.

- Etorri nahi ez badute, esan zien zerbitzariei, zoazte hirira eta bila ezazue festara etorri nahi duen jendea.

Eta morroiak hirira joan ziren. Goseti ugari zegoen bertan, behartsuak, herrena, itsuak...

- Zatozte festara, proposatu zieten.

Eta haiek onartu egin zuten gonbidapena. Baina jende gehiagorentzako tokia zegoenez, soloetara joan ziren mahaikide-bila. Han ere jende goseti, eskale eta etxegabe ugari aurkitu zuten.

- Zatozte festara, esan zieten gizonaren zerbitzariak.

Eta joan ziren haiek ere. Azkenean, etxea lepo bete zen eta primeran pasatu zuten festan.

Baina ez zegoen hasieran gizonak gonbidatutakoetatik inortxo ere. Ez zuten mokadurik ere probatu janari eta edari zoragarri haietatik. Gonbidatu zituzten arren, ez zuten onartu. Horregatik galdu zuten hain festa bikaina".

---

<sup>1</sup> Alexander, P. "Zure lehen Biblia". Giltza, 2004, 398-403 or.